

Agirrezabal Saenz de Santamaria, Inhar

IKASKETAK

- **Arkitektoa** Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).
- **Arkeologiari buruzko ikastaro teoriko praktikoa.** Aranzadi Zientzia Elkartek eta UEUK elkarlanean.
- **Bioeraikuntza Masterra.** Universitat de Lleida, Institut Tecnologic de Lleida, Institut für Baubiologie + Oékologie Neubeuern.
- **Bioeraikuntza Neurketak egiteko Teknikari** izateko formazioa IEB-IBNren eskutik.
- **Lurraldea eta Hizkuntza Graduondokoa.** UPV/EHUren berezko-titulua

IKASTAROAK

- Jasangarritasuna eta zaharberrikuntzaren arloko mintegiak (RSF Bartzelonan, Patorreb Santiagon...)
- Bioeraikuntza arloko mintegi eta ikastaro teoriko praktikoa (topaketak Asturias, Katalunia eta Euskal Herrian, GEA MAPak...)
- Miramar Jauregian Zuraren Babeserako mintegia (Cydemco)
- Arkeologia-ondarea eta Lurralde-garapena ikastaroa Aranzadi Zientzia Elkartek eskainia *“Vocational training system in archaeological heritage based upon e-learning resources”* ekimenaren barrenean.
- Landagunegintzaren arkitektura UEUren udako ikastaroa
- EHUko udako ikastaroak, 3 zaharberrikuntza eta jasangarritasun gaiei lotuta.
- 2012ko abuztua. *Tienes tierra tienes casaren* eskutik lurrezko eraikuntzari buruzko 3 asteko ikastaro teoriko-praktikoa
- 2012_2013_2014 UEUko udako ikastarotan, Bioeraikuntza eta Geobiologia ikastaroaren antolatzaile.
- 2013 Bartzelonan Rosa Sensat Irakasle Elkartek antolatutako *Haurtzaroa eta espazio publikoa* Nazioarteko kongresua.
- 2014 *Arkitektura, lankidetzaz, etxebizitza eta hiri eskubidea* formazioa Mugarik Gabeko Arkitektoen eskutik.
- 2014. “Zinbria gabeko ganga tailerra”, Talleres de Construcción Sostenible-k antolatua eta Ramón Aguirre-k eskainia.
- 2015. “Barne espaziotan laginak hartzeko seminario praktikoa“, AIR ANALYTIK-ek Nuremberg-en eskainia
- 2015. “IBN 2015 kongresua, Baubiologie eta Jasangarritasuna”, Rosenheim-en
- 2016. “Barne diseinua bioeraikuntza irizpidez” mintegia, G.J Schneider y P. van der Ree, IEB-IBN
- 2016-17. “CANAPALEA” nazioarteko proiektuaren baitan, kalamuaz eraikitzekeo teknikari buruzko ikastaroak, Belgikan, Granadan eta Italian

LAN-ESPERIENTZIAK

-Aranzadi Zientzia Elkarteko kide gisan 2007 eta 2010 urteen bitartean Arkitektura Eskolako ikasleei bideratuta ondarea eta zaharberrikuntzaren inguruko auzolandegi ezberdinak koordinatu ditu.

-Aranzadi Zientzia Elkartean; besteen artean Igartza Jauregiko Zaharberrikuntza Zientifikoaren lanetan, baita beste proiektu, eduki grafikoen sorkuntza eta publikazio anitzen parte-hartzaile. Amaiurko gazteluko indusketa taldeko kide.

-GEArentzat Bioeraikuntzaren monografiko baten idazketako lan-taldeko kide

-2012ko ekaina, uztaila eta iraila bitartean Urolako burdinolen eta erroten artxibatzearen inguruko lana EHU-rako, Lauren Etxepare Igiñiz-en zuzendaritzapean.

-Konpostari elkartearekin, Auzokonposguneak Urola Kostan kanpainako eragile; parte-hartzea, zabalkundea eta diseinua (2012)

-haTORR2012 ekimeneko kide, Zarautzen ondare elementu bat auzolanean zaharberritzeko proiektua osatzen

- Urola Kostako Udal elkartearekin bat, talentu ihesa ekiditeko programaren baitan, ko-working-eko proiektuaren garatzaile.